

BALIO PROPOSAMENAK

App honekin lortu nahi duguna hau da: zure egoera emozionalaren arabera, edo zure behar sozialen arabera, zenbait eskaintza eskaini nahi dizkizuegu zuen denbora librean beharrak asetzeko. Horretarako bezero bakoitzak, bere egoera pertsonalari buruz zenbait galdera erantzungo ditu, APP-ak izango duen galdetegi batean, eta horren bidez, bere inguruan dauden baliabideak kontuan hartuz, ekintza bat edo batzuk eskainiko zaizkio. Galdetegia erantzun ondoren, eta ekintzak jaso ostean, aplikazioaren barruan zure inguraren mapa bat ireki egingo da, eta bertan zure ekintzak jausatzeko lekuak izango dituzu, baita nola heldu eta heltzeko zenbat aukera dauden ere.

Ondorioz app honek, entretenitzeko eta bizitza errazteko helburua du, baita denbora modu eraginkorrean erabiltzea ere.

Gure balioa izan daiteke:

kuantitatibo: dohainik izango da app, baina etekinak publizitatearen bidez lortuko ditugu, hala ere publizitateaz aparte beste modu batean etekinak jasoko ditugu. Leku bakoitzak gure APParen barruan agertzeagatik eta bezero kopurua areagotzeko aukera izateagatik ordainduko digun diru kantitatea.

kualitatibo: publikatzen ditugun lekuen kalitatea.

Lehiakideengandik bereizten gaituena

App bezero bakoitzarentzat pertsonalizatua izango da.

App eskuratzeko ez duzu ezer ordaindu behar.

Bezereen bizitza errazten du eta oso erraz erabiltzen da, gainera zure denbora era eraginkorrean erabiltzeko aukera ematen du.

Bezerearekiko harreman mota asko daude.

Gure kasuan zerbitzu automatizatua eskainiko dugu. Jendeak aplikazioa jaisten duenean erabiltzeko zailtasunak izanez gero, bideo tutorial moduko bat izango du (gure youtubeko kontuan). Bertan , aplikazioa nola erabiltzen den azalduko da, eta hori gutxi balitz hilean behin *Trending Plan* izeneko bideo guia bat igoko dugu hilabete horretan egiteko dauden ekintzarik hoberenak azalduz eta gure aholkuak emanaz .Beste alde batetik, aplikazioan jendeak hobekuntzak aportatu edo aholkuak eskatu nahi baditu, telefono batera deitzeko aukera izango du aplikazioak.